


An abstract graphic featuring three green circles of varying sizes and three thin green lines. One line connects the top-left to the top-right circle, another connects the top-left to the middle circle, and a third connects the top-right to the bottom-right circle. The circles are positioned in the upper and lower right areas of the page.

Hizkuntza erabileraren neurketa

Heineken Jazzaldia

Hizkuntzaren azterketaren emaitzen ondorio eta
balorazio txostena

... ..

2013/07/28

Iazko Jazzaldian egindako aurrerapausoak mantendu eta hainbat hobekuntza topatu ditugu, hala nola, programazio liburuxkan iragarki gehienak bi eletan jarri dira. Hala ere, oraindik beste hainbat akats errepikatzen dira.

Idatzizko hizkuntza

Idatzizko materialean, hau da, Jazzaldiaren egitarau osatua, egitarau laburtua, e.a.. elebitasuna nagusi izan da eta lehenengo hizkuntza oro har, euskara izan da. Elebitan dauden testuak (euskaraz eta gazteleraz), bata bestearen itzulpen literalak dira. Eta beti lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz idatzita daude.

Egitarau laburtuan, egitarau osatuan eta oro har idatzizko materialean azaltzen diren iragarle etxeen iragarki gehienak ele bitan daude. Hogei iragarle etxe daude, horietatik hamaika bi eletan, hiru lau eletan, beste hiru euskara hutsez, bi gazteleraz eta bakarria hizkuntzarik gabekoa izan dira. Zoriontzekoa da, beste jaialdietan ez bezala, babesleek euskara erabiltzea beraien iragarkietan.

Antolakuntzatik jasotako oharretatik gehiengoak bi eletan jaso ditugu lehentasuna euskarak duelarik.

Web orrian ere, euskara da lehenengo hizkuntza eta ondoren aukeratzeko aukera ematen du gazteleraz nahiz ingelesez.

Agertokien izenetan berriz, bi eszenatokitan, gaztelerazko izenburua bakarrik jarri dituzte. Agertoki berdean: "Escenario Verde" eta Coca-Cola gunean: "Escenario único Coca-Cola. Bienvenidos al escenario único". Bestetik, Coca-Cola gunean jarritako zakar kuboetan ere gaztelerazko mezuak ageri ziren: "Tu botella ya ha hecho su función ahora te toca a ti. Coca-Cola" edo "Un planeta más limpio es posible gracias a ti. Coca-Cola".

Fnacen kasuan ere, kaleratutako hilabeteko agendan Jazzaldiaren inguruko informazioa gaztelera hutsez kaleratu du.

Bestelako paisaia linguistikoan ikusi genituen ohar, txartel zein pankartak bi eletan idatziak ikusi ditugu, euskarari lehentasuna emanaz. Hala nola, Kursaleko argibideetan, txosnetako prezio eta oharretan, agertokien seinaleetan ...

Ahozko hizkuntza

Ahozko hizkuntzari dagokionez, aurkezpen grabatuak egon direnetan elebitasuna mantendu da, lehenengo hizkuntza euskara izanik eta ondoren gaztelera.

Megafonia egon ez den kasuetan, aldiz, musikariek egin dutenean gaztelera gailendu da. Aurten, euskal taldeen presentzia ere aipatzekoa da eta aurkezpena egin duten hiru kasuetan euskaraz izan da (Belako eta Buffalo). Bestelako kontzertuetan ez da aurkezpenik egin eta musikarekin hasten zuten kontzertua.

Kursaaleko agertokian, Lee Konitzi Jazzaldia Saria emango ziotela iragarri zuten megafoniaz bi eletan. Saria emateko Jazzaldiko Zuzendaria den Miguel Martinek hartu zuen hitza eta gaztelera egin zuen. Ondoren Lee Konitzek ingelesez egin zuen bere interbentzioa.

Langileei dagokionez, gehienekin euskaraz egiteko aukera izan dugu baina beraien lehen hitza gaztelera izaten zen orokorrean, baina, euskaraz agurtu edo galdetu dugunean euskaraz jaso dugu erantzuna.

Bestalde, aurten lehen aldiz, TxikiJazza izan da, Jazzaldian zehar lau egunetan haurrentzako ekintza ezberdinak eskainiz. Jarduera guztiak doakoak eta euskaraz eskaini zituzten Fnacek antolatutako jazz dantza saioa ezik, gaztelera egin zutena.

Prentsaurrekoetan erabiltzen den hizkuntza, gaztelera izaten da nagusi. Euskararen erabilera zertxobait hobetu den arren, oso urria izaten jarraitzen du. Positibotzat jotzen dugu udal ordezkariak izan direnean ele bitan egin dituztela interbentzio guztiak eta horretaz gain, bigarren urtea da espresuki euskarazko itzultzaile bat dagoela prentsaurreko guztietan. Hala ere, bere parte hartzea oso txikia izan da eta horretaz gain, galderak zein musikariaren hitza beste hizkuntza batean izan direnean itzulpena gaztelera egin da bakarrik edota lehenengo gaztelera eta ondoren euskaraz.

Mikel Azpiroz eta Beñat Achiary-ren prentsaurrekoen kasuan, aldiz, euskara gailendu da (bata euskara hutsez eta bestean euskara nagusitu da).

Laburbilduz, emaitza orokorrean baikorra izan da, oro har elebitasuna mantendu da baina oraindik ere badira hainbat hutsune zuzendu daitezkeenak euskararen normalizaziorako, prentsaurrekoetan zein material idatzian. Beraz, jazzaldiko antolatzaileak gonbidatu nahi ditugu, kontuan har ditzaten aipatutako hutsuneak datorren edizioari begira eta emandako aurrerapausoak egonkortu ditzaten atzerapausorik egon ez dadin. Bestetik, hutsuneak zuzentzeko egiten duten ahalegina aitortu eta horretan jarrai dezaten animatu nahi ditugu.

Azkenik, BAGERAk Jazzaldiko antolakuntzari eskerrak eman nahi dizkio gure lana egiteko ematen diguten laguntzarengatik eta euskararen normalizazioan ematen dituzten aurrerapausoengatik. Bide batez, aurrerantzean euskararen aldeko lanean laguntzeko prest izango gaituztela gogorarazi nahi diegu.